

3. KANALAK

EmergiCasc-ko produktuak saltzeko, lau kanal nagusi ditugu:

1. **ONLINE** → web-gune bat sortuko dugu atal desberdinekin gure sentsorea eta kaskoa saltzeko, gainera atal berezi bat jarriko dugu hitzaldiei buruz informazioa emateko eta nahi duenak bertatik ordua hartzeko.
2. **HERRIKO KIROL DENDA** → Online salmentekin batera, hasieran “TREK” tokiko txirrinda dendarekin akordio bat egingo dugu. Bertan gure produktuentzako apartatu bat jarriko dute eta gure produktuak saltzean prezioaren % bat emango diogu. Sistema honen produktibitatea aztertuko dugu eta produktua asko saltzen bada, beste denda batzuetan berdina egiten hasiko gara, hala nola, motozikleta dendetan, zaldi dendetan...
3. **SARE-SOZIALAK** → Besteak beste; Instagram, Twitter, TikTok... Sare-sozialen erabilera lagungarria izango da jendeak gure enpresa ezagutzeko eta aldi berean gure produktuei publizitatea egiteko. Hauek gure sare sozialetan erakusgarri egongo dira eta gainera hitzaldiak eskatzeko edota zalantzak galdetzeko ere balioko dute sare sozialek.
4. **HITZALDIAK** → Oso lagungarriak izango dira sare-sozialekin batera, gure produktuak ezagutarazteko. Hauek jendeak errepidean izan behar dituen ardurez konzientziazteko egingo ditugu. Drogen erabilpen desegokiaz ere hitz egingo dugu, bereziki 13 urte baino gehiago dituen jendearentzat.